



## **GUREAK MARKETINGEK MELILLAKO LURRALDE ARTXIBOA DIGITALIZATU DU**

- **Proiektua desgaitasuna duten pertsonen osatutako talde batekin gauzatu da.**
- **4.000 artxibatzaile inguru lau hilabeteko epean digitalizatu dira.**

**Donostia, 2023ko apirilak 27.** GUREAK Marketing enpresak Melillako Justizia Ministerioan dauden 4.000 artxibatzaile inguru digitalizatu ditu. 60.000 espediente, hiru milioi folio baino gehiago eta 200 plano, jurisdikzio zibileko, penaleko, sozialeko eta administrazioko auzietakoak, lau hilabeteko epean tratatu ziren, iazko abuztutik abendura, desgaitasuna duten pertsonen osatutako talde batekin.

Melillako artxiboaren digitalizazioaz arduratu den enpresa, GUREAK euskal enpresa-taldeko parte da, desgaitasuna duten pertsonentzako lan-aukera egonkorra eta behar bezala egokituak sortzea eta kudeatzea helburu duena. Gaur egun, GUREAK Marketingek 525 pertsonako plantilla du, eta dokumentu-tratamenduko jardueran soilik 149 pertsonako lantaldea du, horietatik 131 desgaitasunen bat duten pertsonak dira.

Horrela, GUREAK Marketingeko 20 pertsona izan dira espedienteak manipulatzeko edo prestatzeko lan operatiboak, eta dokumentu digitalei lotutako metadatuak digitalizatu eta indexatu dituztenak. Hogei pertsona horietatik 16 Melillan egin zuten lan eta beste sei Donostian.

Honako lana lehiaketara atara zen izaera sozialeko lizitazio baten bidez. Lizitazio horretan zehazten zen enpresak gutxienez desgaitasuna duten pertsonen %30ekin gauzatu behar zuela kontratua, eta kasu honetan baldintza hori plantillaren %100ekin bete da.

### ***GUREAK, gaitasunak lantzen***

GUREAK, desgaitasunen bat duten pertsonen egokitutako lan-aukera egonkorra sortzen eta kudeatzen dituen enpresa taldea da. Marketing dibisioaren barruan, besteak beste, dokumentuak tratatzeko zerbitzua eskaintzen dute eta euskarri guztietako dokumentuen digitalizazioan oinarritutako informazioaren kudeaketa, bezeroen prozesuak hobetzeko eta eraginkorragoak egiteko.